



OHIKO BATZAR OROKORRERAKO TXOSTENA

2025eko ekaina

AURKEZPENA

Kaixo guztioi,

Gure ikastolaren urteko Batzar Orokorrera gonbidatu nahi zaituztet, ekainaren 11n ospatuko dena. Bertan, azken urteko ibilbide ekonomikoaren berri emango dizuegu: erabilitako baliabideak, jasotako diru-sarrerak eta egindako inbertsio nagusiak.

Zenbaki horien atzean, ordea, badago gure proiektuaren muina: ikasleen heziketa osoa. Izan ere, jasotako eta erabilitako baliabide ekonomiko guztiak helburu argi baterako erabiltzen dira: euskaldunak, barne sendotasuna dutenak, erabakitzaile eta ekintzaile direnak, eraldatzaileak eta ikuspegi kooperatiboa duten hezitarrak hezteko.

Profesional talde sendo batek egunero-egunero lantzen ditu ezaugarri horiek gure ikasleekin, eta gure erabaki ekonomikoek horri eusten diote: langileen formakuntzan, hezkuntza-baliabideetan, eta ikasleek beren potentziala garatzeko behar dituzten eguneroko tresnetan.

Elkarlanari eta gardentasunari eutsiz, gure proiektu pedagogikoaren zutabe ekonomikoak partekatuko ditugu batzarrean, guztion artean eraikitzen jarraitzeko.

Bestalde, aukera hau aprobetxatu nahi dut Araba Euskarazera gonbitea egiteko. Aurtengo edizioa ekainaren 15ean ospatuko da Gasteizen, Armentia Ikastolan eta inguruetan, eta euskararen aldeko jai erraldoi hau guztion artean bizitzea nahiko genuke. Euskara eta ikastolen proiektua ospatzeko, indartzeko eta kalera ateratzeko unea izango da.

Eskerrik asko zuen konfiantzagatik eta parte-hartzeagatik

Aiara Murga Egia

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
2024 EKITALDIAREN EMAITZA KONTUA	3
2024 EKITALDIAREN EGOERA BALANTZEA.....	4
2025 EKITALDIRAKO AURREKONTUA	6
EGOERA EKONOMIKOAREN HAUSNARKETA.....	8
JANGELAREN FUNTZIONAMENDUA.....	11
BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA	13
BOTU DELEGATUA	14

2024 EKITALDIAREN EMAITZA KONTUA

	2024	2023
A) ERAGIKETA JARRAITUAK		
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.389.228	1.397.614
a) Salmentak.....	1.389.228	1.397.614
4. Hornikuntzak.....	(438.066)	(453.804)
a) Salgaien kontsumoa.....	(89.270)	(80.425)
b) Lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien kontsumoa.....	(160.803)	(159.309)
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak.....	(187.993)	(214.070)
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak.....	4.375.441	3.920.681
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk.....	21.732	63.370
b) Ekitaldiko emaitzan sartutako ustiapeneko diru-laguntzak.....	4.353.709	3.857.311
6. Pertsonal gastuak	(4.735.302)	(4.290.549)
a) Soldatak, lantsariak eta antzekoak.....	(3.646.432)	(3.282.740)
b) Karga sozialak.....	(1.088.870)	(1.007.809)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	(332.507)	(310.320)
a) Kanpoko zerbitzuak	(274.217)	(276.539)
b) Tributuetak	(3.456)	(389)
c) Eragiketa-komertzialeko galerak, narriadurak eta hornidura-aldakuntzak	(28.239)	(186)
d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	(26.595)	(33.209)
8. Ibilgetuaren amortizazioa.....	(248.571)	(242.850)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena.....	21.958	19.458
13. Bestelako emaitzak	(5.907)	5.726
A.1) USTIAPENENKO EMAITZA.....	26.274	45.956
14. Sarrera finantzarioak.....	14.276	1.250
b) Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak.....	14.276	1.250
b1) Taldeko enpresa eta elkartuetakoak.....	12.059	3
b2) Hirugarren enpresetakoak	2.217	1.247
15. Gastu finantzarioak	(27.356)	(41.977)
b) Hirugarrenen zorrak	(27.356)	(41.977)
16. Kanbio-diferentzia.....	678	(0)
18. Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak.....	5.754	(0)
a) Narriadura eta galerak	5.754	(0)
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA	(18.156)	(40.727)
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA	8.118	5.229
19. Mozkinen gaineko zerga.....	(261)	(963)
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA	7.857	4.266
A.5) EKITALDIKO EMAITZA.....	7.857	4.266

2024 EKITALDIAREN EGOERA BALANTZEA

AKTIBOA

	euroak BALANTZEA 2024	euroak BALANTZEA 2023
A. AKTIBO EZ KORRONTEA	3.668.673	3.718.207
II. Ibilgetu materiala	3.517.513	3.549.567
1. Lurrak eta eraikuntzak	2.662.008	2.765.027
2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	855.505	784.540
IV. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	131.392	125.382
1. Ondare tresnak	120.584	114.574
3. Zorra adierazten duten baloreak	10.808	10.808
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	19.768	43.258
1. Ondare-tresnak	1.550	1.550
2. Hirugarrenetik hartzekoak	17.618	41.108
5. Bestelako aktibo finantzarioak	600	600
B. AKTIBO KORRONTEA	834.175	619.250
II. Izakinak	12.912	20.902
1. Merkataritzakoak	5.740	13.935
2. Lehengaiak eta bestelako hornikuntzak	7.172	6.967
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	129.534	85.603
6. Administrazio publikoekiko bestelako hartzekoak	129.534	85.603
V. Epe laburreko inbertsio finantzarioak	553.731	197.840
5. Bestelako aktibo finantzarioak	553.731	197.840
VI. Epe laburreko periodifikatzeak	6.875	16.749
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	131.123	298.156
1. Diruzaintza	131.123	298.156
AKTIBOA GUZTIRA	4.502.848	4.3377.457

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

	euroak BALANTZEA 2024	euroak BALANTZEA 2023
A. ONDARE GARBIA	3.213.000	3.305.131
A.1 Funts propioak	1.447.976	1.437.033
I. Kapitala	147.421	144.336
1. Kapital eskrituratua	147.421	144.336
II. Erreserbak	1.364.384	1.364.384
3. Estatutueta erreserbak	121.500	121.500
4. Beste erreserbak	1.242.884	1.242.884
III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	(71.686)	(75.953)
2. Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	(71.686)	(75.953)
V. Kooperatibaren soberakina (negatibo edo positiboa)	7.857	4.266
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.765.024	1.868.098
B. PASIBO EZ-KORRONTEA	679.760	795.660
I. Hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko bestelako xedeetarako ekarpena (COFIP)	-	-
III. Epe luzeko hornidurak	230.031	191.291
1. Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak	230.031	191.291
IV. Epe luzerako zorrak	449.729	375.330
2. Kreditu erakundeekiko zorrak	449.729	375.330
C. PASIBO KORRONTEA	610.088	465.705
V. Epe laburreko zorrak	73.440	98.963
2. Kreditu erakundeekiko zorrak	73.440	98.959
5. Epe laburreko bestelako partaidetzak	4	4
VI. Taldeko enpresekiko, elkartuekiko eta bazkideekiko epe laburreko zorrak	11.949	12.505
1. Taldeko enpresekiko zorrak	11.949	12.505
VII. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	484.660	457.894
1. Hornitzaileak	42.927	99.189
3. Hainbat hartzekodun	21.479	49.512
4. Pertsonala	25.319	52.001
6. Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	394.935	257.192
VIII. Epe laburreko periodifikazioak	40.039	40.232
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	4.502.848	4.337.457

2025 EKITALDIRAKO AURREKONTUA

GASTUAK	euroak AURREKONTUA 2025	euroak AURREKONTUA 2024
LANSARIAK	4.739.430	4.552.010
Irakasletoa	2.691.363	2.685.028
Administrazioa	171.498	169.035
Jantokia+garraioa	262.081	222.399
Mantentze-lanak-garbiketa	152.039	147.852
Ordezkapenak	237.541	243.636
Aurrejubilazioak-Liberatuak	59.984	48.205
COVID lanaldiak	1.111.622	1.006.399
Enpresaren kargurako G. Segurantzaz	43.301	29.454
Gastu Sozialak	10.000	
PRESTAKUNTZA	18.537	21.200
FUNTZIONAMENDUA	187.220	189.345
MANTENTZE-LANAK	147.045	157.366
JANTOKIA	126.116	124.218
KOMUNIKAZIOA	23.400	21.700
GARRAIOA	75.246	89.592
ELKARTEAK	11.691	11.858
FINANTZA GASTUAK	24.272	30.623
IKASTOLAKO BEKAK	17.643	26.627
BESTELAKO GASTUAK / EKE	120.874	126.041
URTEKO AMORTIZAZIOA	257.369	256.460
GASTUAK GUZTIRA	5.748.843	5.607.041

SARRERAK

	euroak AURREKONTUA 2025	euroak AURREKONTUA 2024
EUSKO JAURLARITZA	4.183.671	4.044.799
Hezkuntz Kontzertuak	3.970.687	3.826.178
Inbertsioak	32.711	23.490
Proiektuak- 0-3 urte	100.529	106.264
Bestelako kontzeptuak	79.744	88.886
LAUDIO UDALA	64.257	56.084
KUOTAK	1.273.457	1.240.301
Ikastola	548.613	543.366
Jantokia	400.999	372.294
Garraioa	25.494	27.863
Bestelakoak	12.600	11.546
Aparteko kuota	79.080	78.720
Inbertsio kuota	170.893	170.893
GKE/Gelaz Kanpoko Ekintzak	35.778	35.619
BESTELAKO SARRERAK	127.056	102.685
KAPITAL DIRULAGUNTZAK	114.584	135.247
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK	52.551	48.433
SARRERAK GUZTIRA	5.768.427	5.617,968
2025 EKITALDIAN SORTUKO DIREN ERREKURTSOAK	19.584	10.928

2024 EKITALDIAZ HAUSNARKETA

Aurkeztutako balantze eta emaitza kontua Ikastolatik kanpoko ikuskaritza enpresa batek egindako auditorretzan jasota daude eta bazkide guztiek txosten osoa kontsulta dezakete Ikastolako idazkaritzan.

Urtean zehar aurrekontuetan jasotako jarraibideak aplikatzen dira, eta egunerokoan gerta daitezkeen gorabe-

GASTUAK

SOLDATAK

Soldatetan igoera nabarmena izan dugu, eta horrek azterketa ekonomiko zehatza eskatzen du, gorakadaren arrazoiak eta enpresaren kostu-egituran duen eragina ulertzeko. Igoera hau hainbat faktorek eragin dute, batzuk planifikatuak eta beste batzuk ustekabe-koak izan dira.

Batez ere, igoera honako arrazoi hauek azaltzen dute:

- Soldaten parekatzea kategoria guztietan
- Aurreikusi gabeko kalteordaina eta aurrejubilazio saria
- Gizarte Segurantzaren gastuaren igoera
 - Gurasotasun baimenetan
 - Aurreikusitako kenkarien murrizketa
 - Gizarte Segurantzako kotizazio alaketak

heren arabera egokitzapenak bideratzen dira. Kontuen ikuskaritza egitean auditoreek proposatutako doikuntza desberdinak kontutan hartuta daude aurkezten diren urteko kontu hauetan.

Ikastolaren egoera ekonomikoari buruzko hausnarketa 2024 ekitaldian jasotako gastu eta sarreraren azterketa kontutan hartuta abiaraziko da.

ELEKTRIZITATEA

Gastua murriztu egin da. Alde batetik, elektrizitatearen prezioa jeitsi delako, baina beste alde batetik, eguzki plaketan egindako inbertsioagatik autokontsumoarekin hasi garelako.

FINANTZA GASTUAK

2023 urtean Euriborraren igoera dela eta finantza gastuek igoera izan zuten. Euriborrak berriz ere jeitsiera bat izan du 2024 urtean eta horren ondorioz, zenbateko hau murriztu egin da.

APARTEKO GASTUA

Eusko Jaurlaritzako kontuan ikuskarriak eskatutako zuzenketa bat egin behar izan dugu, eta 2023 eta 2024 urteetan konponketa bideratu dugu.

SARRERAK

ITUNAK

Kontzeptu honetan igoera izan dugu, soldaten ekiparazio prozesua dela eta. Ekiparazioa adostu arte, Eusko Jaurlaritzak ez zituen bere gain hartzen ratio barruan zeuden dozenteen soldata osoa, zati bat Ikastolak bere gain hartzen zuen. Ekiparazioa eman denetik, Eusko Jaurlaritzak doze hauen soldata osoa ordaintzen hasi da (salbuespenak barne).

IKASTOLAKO KUOTA

2024/2025 ikasturtean aurreikusitako baino ikasle gehiago izan ditugu, batez ere Sehaskan eta Katukan.

INBERTSIOAK

2024ko ekainan, 10 urtetara, mailegu bat sinatu dugu. Mailegu hau hainbat inbertsio egiteko bideratu egin dugu:

- *Frontoiaren insonorizazioa*
- *Kanpo espazioetan egurrezko egiturak instalatu*
- *Lehen Hezkuntzako esplanadako harrobiaren segurtasuna bermatzeko hormigoizko horma. Bertan baratza jarri da.*

Mailegu honek suposatzen duen kostua murrizteko Inbertsioetarako diru laguntza (HEZKOOP) baliatu dugu. Bestalde, 2024 urtean, eguzki plaken instalaziorako inbertsioa ere egin dugu: 56.385,18€

GARRAIOA

Balmasedako autobus linea kentzearen ondorioz murrizketa izan dugu kontzeptu honetan, baita garraio gastuetan ere.

INTERESAK

Dirua geldirik gordailu batzuetan dugu eta horrek errentagarritasun bat eman digu.



2025eko AURREKONTUA

2025 urteko aurrekontuen oinarrian aurreko urtekoak daude, haien jarraipen bat dira.

GASTUAK

Igoerarik nabariena hurrengoak dira:

- *Gizarte Segurantzak. Kotizazio igoerak eman dira 2025ean, gurasotasunen bonifikazioak eta dedukazioak murriztu dira.*
- *Jantoki eta garraioa. Lanpostu berrien sorrera eman da. Guraso txanda gero eta familia gutxiagok egitearen ondorioz, kontratupeko langileekin bete behar izan dira.*
- *Aurrejubilazio sari bat egon daitekeela aurreikusten dugu.*
- *Ez dozenteei ekiparazio posible baten igoera ezarri zaie.*

GARRAIOA

Balmasedako autobus linea kentzearen ondorioz murrizketa izan dugu partida honek suposatzen duen gastuan.

IKASTOLAKO BEKAK

Kontzeptu honetan, hobariak eta barne bekak sartzen dira. 2025ean Balmasedako ikaslerik ez da egongo, beraz, ikasle hauek jasotzen dituzten hobariak desagertuko dira eta hori dela eta, jeitsiera nabarituko dugu.

SARRERAK

EUSKO JARULARITZA

Itunetan igoera izan dugula aurreikusten dugu, Ordainketa Eskuordetuaren igoera dela eta. Bestalde, Heziketa Bereziko Laguntzaile gehigarri bat ordaintzen ari dira aurreikusita gure narekiko.

Inbertsioetarako diru laguntza ere onartu digute (HEZKOOP) aurreikusiakoa baino altuago izan dena.

IKASTOLA KUOTAK

2025/2026 ikasturtean ikasle jeitsiera izango dugu beraz, 2025eko aurrekontuan ondorioak izango ditu. Ikasle jeitsiera Batxilergoan eta Sehaska-Katuka mailatan izango dugu batez ere.

Garraioan ere, kuota jeitsiera izango dugu, Balmasedako ikasleen garraio kuotarik ez delako egongo.

JANGELAKO FUNTZIONAMENDUA

KONTROL EKONOMIKOA 2024

SOLDATAK GUZTIRA	323.061,12
FUNTZIONAMENDUA GUZTIRA	24.441,76
LEHENGAIK GUZTIRA	115.282,19
GASTUAK GUZTIRA	462.785,07

OHIKO DIRU-SARRERAK	374.156,35
EZ-OHIKO DIRU-SARRERAK	5758,70
TXANDA DIRU-SARRERAK	41.164,89
SARRERAK GUZTIRA	421.079,94

2024ko jangelako kontrol ekonomikoa burutu ostean, emaitza negatiboa ateratu da, hain zuzen ere, -41.705€.

Aipatzekoa da, sukaldeko lan taldea, esfortzu handia egiten ari dela lehengaiaren kostua mantentzeko, kontuan hartuta azken urte hauetan prezioen igoera nabaria eman dela. Kontuan hartu behar dugu, Ikastolak, lehengaiaren kalitatea mantentzea lehenesten duela, eta noski, gertuko hornitzaileekin lan egiteko bidearekin jarraitu nahi duela.

Hala ere, azken urte hauetan, soldaten igoera eman da eta honek, guztizko gastuen zenbatekoa igotzea eragin izan du.



KUOTEN BERRANTO-LAKETA

Jangelako kuotek, bi kontzeptu biltzen dituzte. Alde batetik, jangelako kuota, hilabetero ordaintzen dena, eta bestetik, jangelako txanda kuota, erdia abenduan eta beste erdia otsailan ordaintzen dena.

Laudio Ikastola, guraso kooperatiba bat da, eta auzolana erdigunean jarrita, jangelako txanda sortu zen. Alde batetik, gurasoek auzolanaren bidez kooperatibaren funtzionamenduan parte hartzeko, eta beste aldetik, txanda egiten zuten familia horiek, kuoten murrizketa izateko.

Jangelako txanda asko aldatu izan da bere sorreratik eta aipatzekoa da, 2024/2025 ikasturtean, 3 familiek soilik parte hartu dutela. Azken urteetan izan duen gainbehera oso handia izan da eta gainera, urteak daramazkigu jangela zerbitzuagatik ordaintzen dena, kuota bakarrean jartzeko eskaerekin.

Familiek askotan aldarrikatu dute jangelagatik ordaintzen dena hilabetero berdina izatea, eta batez ere, abenduan eta otsailan, jangelako txanda ordaintzea dagokienean, guztizko zenbatekoa asko handitzen dela.

Gaia artezkaritzan sakonki landu ostean, kuota bakarra sortzea eta txanda kuota desagertzea erabaki da. Txanda egin nahiko luketen familiek, aukera izango lukete eta gaur egungo zenbate-

koaren diru itzulketa bideratuko litzaieke.

Beti ere, diru sarrerak mantendu beharko liratezke. 2024/2025 ikasturteko diru sarrerak mantentzeko eta emaitza berdintzeko, jangelako kuota 95.20€tan geratuko litzateke. Kuota honek ere, berrikuspena behar duela agerikoa da, Ikastolak ezin baitio eutsi hasieran aipatutako emaitza negatibo horri. Inguruko ikastetxeetako jangelako kuotak aztertuta, Ikastolako jangelako kuota azpitik dago eta argi dago egungo egoerari eusteko kuotak igoera izan behar duela. Hurrengo urteetan, jangelako kuota igoerak izan beharko dituela aurreikusten dugu, eta horrekin hasteko, 2025/2026 ikasturtean 98€ko kuota planteatzen da Haur Hezkuntzako 4 urtetik aurrera, erabiltzaile guztiei aplikatzeko eta hilabetero berdina izateko.

Haur Hezkuntza 1/2/3 urteko jangelako kuotak berdin jarraituko luke.

Azterketa honek ere hurrengo urteetan hausnartzea eta lanketa bat bideratzea eskatzen digu. Bigarren Hezkuntzako etapen ordutegi jarraia hasi zenean erabiltzaileen jeitsiera nabaria izan genuen eta horrek diru sarreretan ondorio zuzena izan zuen. Kontuan hartuta, jaio-tza tasa behera doala eta ondorioz erabiltzaile gutxiago izango ditugula, goiko etapatan erabiltzaile gehiago nola lortu landu beharko da.

OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Laudio Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak Kooperatibako bazkide guztiak 2025eko ekainaren 11n ospatuko den Ohiko Batzar Nagusira deitzen ditu.

Batzarra kooperatibaren egoitza sozialean burutuko da, Laudio herriko Moxotekale kaleko 16.an, arratsaldeko 17:30ean lehenengo deialdian eta 18:00etan bigarreanean.

Asanbladak ondorengo gai-zerrenda izango du aztergai:

- 1. Aurreko Batzarraren aktaren onarpen txostenaren irakurketa.*
- 2. Bazkide bi izendatu Batzarraren akta onartu dezaten.*
- 3. Artezkaritza Kontseiluaren berriztapena.*
- 4. 2024 ekitaldiaren urteko kontuen eta emaitzaren aplikazioaren aurkezpena, eta hala badagokio, onarpena.*
- 5. 2025 ekitaldirako Laudio Ikastolaren egoera ekonomikoaren azterketa eta aurrekontuen aurkezpena.*
- 6. Jangelaren berrantolaketa*
- 7. Loteriaren inguruko hausnarketa*
- 8. Eskari-galderak.*

Ohar metodologikoak:

- a) Batzar egunean 2. deialdira, 18:00etakora, azaltzea gomendatzen da.*
- b) Bazkide guztiek Batzarrean aztergai izango diren gaien inguruko informazioa bilduko duen txostena eskuratuko dute.*
- c) Haurtzaindegi zerbitzua izango dugu.*

OHIKO BATZAR OROKORRERAKO BOTU ESKUORDETUA

Ikastolako bazkidetzen titularrei (familia bakoitzak izendatutakoak) dagokie Batzar Orokorrean parte hartzea eta bozkatzea.

Artezkaritza Kontseiluak bazkide guztiei, aztergai izango diren puntuen garrantzia ikusirik, Batzar Nagusira azaltzearen garrantzia ekarri nahi die gogora.

Kooperatibaren estatutuen 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, bazkide bakoitzak norberarenaz gain beste bi bazkideren ordezkaritza bete ahal izango du Batzarrean.

Kontziliazio familiarrerako beharrezkoa izanez gero, bazkide izendatuta ez dagoen familia bereko beste gurasoa egonez gero, zilegi da bera Batzar Nagusirako bazkide titularraren ordezkari izendatzea.

Prozedura hauek bideratzeko, orrialde honen beheko zatian helarazten den akreditazio eredua behar bezala beteta eta izenpeturik aurkeztu beharko da Batzarreko sarreran.



BOTU ESKUORDETUA

_____ Jaun/Andereak,
_____ ENA zenbakia duenak eta _____ko
auzokidea, Audio Ikastola Kooperatiba Elkarteko bazkide bezala
_____ bazkideari,
_____ ENA zenbakia duena, ematen diot nire ordezkaritza
2025eko ekainaren 11n ospatuko den Ohiko Batzar Nagusirako, ezina baitut
agerian bertora azaltzea.

_____n 2025eko ekainaren _____an.

Ordezkaritza onartzen dut,

_____-k izenpetua
(bazkidea)

_____-k izenpetua
(ordezkoa)